


Euskal AEko BPGk %0,6ko urte arteko hazkundera izan du

Aurreko hiruhilekoarekiko ez da aldaketarik egon

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %0,6ko hazkundera positiboa izan du aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz gero, urtaro- eta egutegi-ondorioak kendu ondoren, EUSTATEk egindako aurrerapen datuen arabera. Urte arteko hazkundera positiboa duen bigarren hiruhilekoa da jarraian, sei hilabetez jarraian negatiboa izan ondoren. Espainiako ekonomiaren urte arteko hazkundera %0,2an dago, Estatistika Institutu Nazionalaren datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekiko ez da Euskal AEko BPGren hazkundera-tasan aldaketarik egon 2010eko hirugarren hiruhilekoan, eta %0,0ko hazkundera izan du. Honek esan nahi du hiruhileko arteko hazkundera-tasaren erritmoa jaitsi egin dela, aurreko hiru hiruhilekoetan egondako aldagai positiboen ondoren. Tasa hau Espainiako ekonomiarako zenbatetsitakoaren berdina da.

BPGren hazkundera-tasak (%). Euskal AE



Urtaro- eta egutegi-ondorioen datu zuzenduak
Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen aurrerapena

Hiruhileko honetako urte arteko hazkundearen oinarrian lehen sektorearen eta industrialaren jarrera hobe daude. Zerbitzuen sektoreak eboluzio positiboa du, baina aurreko hiruhilekoan baino moderatuagoa izan da. Eraikuntza sektorearen jarduerak, aldiz, aurreko hilabeteetako joera negatiboarekin jarraitzen du.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEKo Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko datu-bankua